Prest! DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

215 zenbakia
2020 **uztaila**

Prest!

BERBETAN: **ZIORTZA KARRANZA RAMIREZ** PSIKOLOGOA ETA SEXOLOGOA

ERREPORTAJEA: **"ORAIN EZ DUGU NORA JOAN PATINATZERA"** BARKUA: **JAI FALTAREN ALBO-KALTEAK**

TOKIKOM

202-203-205-206-



Sustatzailea

Herbaizu euskara elkartea

Babesleak

Intxixu Ikastola

Txantxiku .Deustuko Aisialdi Taldea.

Erraldoien Andalan Konpartsa

Deusto Bizirik Comercios, servicios y hostelería de Deusto

Bihotz Alai Fondoan Dantza Taldea

Abaravn Taldea Deustu

Elorri Bertso Eskola

Deustuko Jai Batzordea

S.D. Deusto

Defenda Dezagun!

Zirikatzen!

eaj pnv deustu

Egunsentia Eskaut Taldea 1982tik

ernai Deustua

Pare Hautsi Ditzagun Kateak

Deustuko Gazte Asanblada

Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkartea da edukiaren erantzule bakarra

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Bilbao

Babestu Prest!

urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

Izen-abizenak .....
Helbidea .....
Telefonoa .....
E-posta .....
Kontu zenbakia (Iban) .....

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

215 zenbakia
2020ko uztaila

aurkibidea

Iñigo Martinez Peña - Helene Sarasola Isazelaia	**Iritzia**	4
Patricia Escute Trilla	**Gurera etorriak**	5

e **erreportajea**
Deustuko skate parkea

33 urtez Deustuko eta inguruko skaterren etxea izan eta gero, Zorrotzaurre Planaren baitan sei etxebizitza bloke egiteko eraitsi zuten ekainean Deustuko skate parkea. Patinatzaileak haserre eta amorratuta daude, urte guzti hauetako utzikeriaren ostean, "ondare" ziren arrapalak suntsitu dituztelako, lekualdatzeko edo gordetzeko aukerarik eman gabe.

6

San Inazio BHI	**Eskolak**	10
Beltz-tratulariak (III): Francisco Lemonauria	**Behin batean**	12
EAEko hauteskundeen emaitzak auzoz auzo	**Artikulua**	14

b **berbetan**
ZIORTZA KARRANZA RAMIREZekin

Psikologoa eta sexologoa da Ziortza Karranza, doluan espezializatua, besteak beste. Rafaela Ybarra kalean Gurenduz psikologia integralerako zentroan egiten du lan. Terapiak egiteaz gain, doluaren eta sexologiaren inguruko formakuntzak ematen ditu. Itxialdiak jendartearen psikologian nola eragin duen azaldu digu.

16

Elorrietako Etxe Handia (1976)	**Irudiak berbetan**	21

ETXEBIZITZA Etxebizitza zaharberritzeko Udal plana

JAI HERRIKOIAK Jai faltaren albo-kalteak

PINTXODROMOA Euskopapa

KULTUR TXOTX Jon Mirena San Pedro eta Iratxo Gorostiza Etxeberria

barkua bete herba

24

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Jone Gartzia Gerra
Erredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Nerea Cubillo, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Asier Robles, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Helene Sarazola, Iñigo Martinez Peña, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurraga
Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustu eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea
Argazkiak: Ecuador Etxea
Publizitatea: Jone Gartzia Gerra
Diseinua: BO5T
Maketazioa: Laura Freijo Iglesia
Inprimategia: Antza
Ale kopurua: 2.800
Lege Gordailua: BI-571-01
ISSN: 1577 - 9017

Iñigo Martinez Peña
Filosofia irakaslea

Bizitzaren amateurra

Lagun batek aipatu zidan aurrekoan bizitzaren kontu garrantzitsuetan ez dagoela profesionala izaterik, beti amateurrak garela. Nola jokatu, adibidez, adiskide, maitale edo guraso moduan? Ez dago protokolorik, ezin da aldez aurretik jakin. Behin funtzionatu zuenak agian ez du hurrengoan berriro funtzionatuko, detaile txiki batek dena alda dezake… inprobisatzen goaz.

Egun, dena den, edozertarako ikastaroak eskaintzen dira: publiko aurrean hitz egiteko, osasuntsu jateko, ligatzen arrakasta edukitzeko, negozioa bikain gidatzeko… Finean, gauzak egiteko metodo eta bide zuzena saltzen digute. Nire susmoa da, gehienetan, ilusio baino ez direla.

Zer da metodo zuzena? Zer da ikastea? M. Recalcatik *Klaseko ordua* liburuan, ikasketa prozesuaren misterioa mahai gainean jartzen du. Batzuetan, ikasi, ikasi egiten da, baina ez dakigu oso ondo zelan. Jakintzarekiko maitasuna ezinbestekoa da, eta, ezin da aldez aurretik kalkulatu zerk harrapatuko gaituen: irakaslearen ahotsa izan daiteke? Bere testigantza? Esandako edo irakurritako zerbaitek gugan eragindako oihartzuna?

Sokratesek, adibidez, balio etikoak transmititzea ezinezkoa dela aipatzen du Platonek jasotako *Menon* elkarrizketan. Teknikak bai, teknikak irakatsi daitezke: zapatak egiteko primerako zapatagile batengana jo, edo zaldian ibiltzeko zaldunik egokiena bila genezake, baina pertsona ona izatea bestelakoa da, erantzukizun singularraren esku dagoelako. Etika, teknikak ez bezala, ikasezina da. Eta ikasezinaren zerrenda luzatu daiteke: desiraren, gaixotasunaren, heriotzaren, plazerraren… amateurrak.

Beraz, galdera, ezjakintasun eta korapiloen artean bizi gara, biziko gara, baina korapiloak elkarrekin partekatu ditzakegu, harremanetan jarri, haietaz hitz egin. Horretan aritu naiz PREST! aldizkariak eskainitako tartetxo honetan, iritzigile amateur gisa, eta emandako aukera polita eskertzen diet, bihotzez.

Helene Sarasola Isazelaia
Ikaslea

Jakinduriak Deustualdea erre dezala!

Maialen Lujanbiori behin galdetu zioten ea zer zen bertso on bat edo bertsolari ona izatea. Denaren gainetik, eta estilo kontuetan sartu aurretik, bertsoak entzuleek ulertzeko modukoak izan behar zirela erantzun zuen. Berdin du bertsoa apaingarriz eta su artifizalez hornitzeak; metaforez, anaforez edo epitetoz janzteak, hartzaile orok ulertu ezean, ezin da bertso eta bertsolari ona izan. Nago berdina gertatzen dela idaztean.

Askotan suertatu zait testuren bat hartu eta burua hautsi behar izatea lerrook ulertzeko. Eta ziur nago oso testu finak direla, baina, ezer gutxi balio du irakurleek ulertuko ez badute. Esana baitago munduan dagoen gauza garestienetakoa ezjakintasuna dela. “Sols el poble salva al poble; herriak bakarrik salba dezake herria” oihukatzen dugu. Idatzi dezagun bada, herriarentzat, gure ingurukoentzat. Salatu ditzagun auzoan, hirian, dauden behar, zulo, hutsune, huts egite eta baliabide ezak.

Komunitate zabal eta anitzerako idaztea gustatzen zait, baita nire hilabeteroko testuak ekarpentxo izatea irakurleren batentzat. Nire hausnarketak, buruhausteak, eztabaidak… plazaratzeko lekua izan dut hemen eta paregabea izan da auzoko aldizkarian idazteko aukera izatea; animatu nahiko zintuzketet erreleboa har-tzera. Mila esker PREST! burkoarekin izan ditudan eztabaidak, haserreak eta barruan nituen haizeak asetzen laguntzeagatik. Asko ikasi dut zuekin guztiokin. Izan jakintsu eta eskuzabal. Jakinduriak Deustualdea erre dezala!

Patricia Escute Trilla

Jatorria: Almoster, Tarragona
Bizitokia: Deustu
Lanbidea: Gizarte langilea

“Ez dut gaztelania nire hizkuntza sentitzen, baina hori erabiltzen dut berdina gertatzen zaion hemengo edonorekin komunikatzeko”

Testua: Laura Freijo

Noiz eta zergatik etorri zinen Euskal Herrira?

Betidanik leku batetik bestera mugitzeko grina izan dut eta hainbat herrialdetan bizi izan naiz. 2017an, Ingalaterran bizi nintzela, tomatero batekin maitemindu nintzen eta leku batetik bestera mugitzeko dudan erraztasunak bultzatuta, 2019an Bilbora bizitzera etorri nintzen ilusioz beteta.

Zertan ari zara hemen?

Gizarte langilea naiz eta salerosketaren biktima diren emakume migratuekin lan egiten dut Gurutze Gorrian.

Zer da hemendik gehien gustatzen zaizuna?

Euskal Herriko kolore berdea gustatzen zait, etengabe mendiak ikusi ahal izatea, korrika egitera ateratzea eta herri eta txoko guztiak ezagutzea, hondartza handiak eta pintxopotea! Hemengo bizi estiloa gustatzen zait, hain indartsua den sare asoziatibo eta soziala, konpromisoa eta une oro planak inprobisatzeko ahalmena.

Zer duzu faltan?

Mediterraneoko eguzkia eta ur beroa, nire herriko olioa, terraza batean lagunekin Reuseko vermuta hartzea, gurasoak, familia eta Uru, nire txakurra, nahiz eta zorionez denak askotan bisitan etortzen diren.

Zein ezberdintasun sumatzen dituzu zure jatorriko herriaren eta Bilboren artean?

Nire herriak, Almosterrek, 1.300 biztanle ditu eta itsasoaren eta mendiaren artean dago, Reusetik kilometro gutxira. Bilborekin alderatuta, zerbitzu eta eskaintza kultural gutxi ditu, baina oso lasai bizi da bertan eta pertsona guztiak dira ezagunak eta garrantzitsuak: bakoitzak bere izena, abizena eta istorioa dauka. Auzokideen arteko harremanak estuagoak dira. Bilbon, nahiz eta hiri txikia izan, inpertsonalagoa da eta oharkabean pasa zaitezke, onerako eta txarrerako.

Bilbo bizitzeko hiri ona dela uste duzu?

Hiri txikia izanagatik ere, behar dudan guztia duelako gustuko dut Bilbo, luxu bat da. Nahiz eta itsasorik ez izan, urak hiria zeharkatzen ikusteak balioa ematen dio, hiriko hainbat puntutatik urrunean mendiak ikusteak bezalaxe. Garraiobide publiko sare ona du eta Euskadi barruko distantziak txikiak dira, 30 minututan hondartza basati batean edo edozein mendi magaletan egoteko moduan. Niretzako, hori bizi-kalitatea da.

Euskara ikasi duzu?

Egia esan momentuz ezin izan dut ikasi. Frantses agiri bat ateratzen nabil lanerako behar dudalako, baina datorren urtean euskara ikasten hasteko asmoa dut.

Uste duzu euskara jakitea ezinbesteko dela hemen bizitzeko?

Ez nuke ezinbesteko hitza erabiliko, baina bai beharrezkoa. Euskaraz hitz egiteak ate gehiago irekiko lizkidake, ez bakarrik lanari begira, alderdi sozialean ere. Ez dut gaztelania nire hizkuntza sentitzen, baina hori erabiltzen dut berdina gertatzen zaion hemengo edonorekin komunikatzeko. Batzuetan, bikotekidearekin, hitz zehatz batzuk (landareak, animaliak…) ingelesez esaten ditugu elkar ulertzeko, ez batak ez besteak ez dakielako zelan esan gaztelaniaz!

Denbora asko geratzeko asmoa duzu?

Denborak esango du. Ez litzaidake axolako, baina ez dakit zein izango den nire azken helmuga, oraindik bizitzeko leku asko geratzen baitzaizkit, eta nire bizitza epe luzera antolatzea ez dator bat nirekin. Halere, noizbait baldin banoa, hemengo gauza asko izango ditut faltan.

“ORAIN EZ DUGU NORA JOAN PATINATZERA”

33 urtez Deustuko eta inguruko skaterren etxea izan eta gero, Zorrotzaurre Planaren baitan sei etxebizitza bloke egiteko eraitsi zuten ekainean Deustuko skate parkea. Patinatzaileak haserre eta amorratuta daude, urte guzti hauetako utzikeriaren ostean, “ondare” ziren arrapalak suntsitu dituztelako, lekualdatzeko edo gordetzeko aukerarik eman gabe.

Testua: Jone Gartzia Gerra **Argazkiak:** PREST!, Jorge Calderon eta @gaizkasi

1987an ‘Tigrearen’ eraikinaren parean jarri zutenetik, Deustuko skate pista ez da geldirik egon. 2004an mugitu zuten lehen aldiz, luxuzko etxebizitzak egiteko. Botikazarreko biribilgunearen albo batera eraman zuten orduan eta horren berezia egiten zuen egurrezko arrapala txikia jarri zuten. Bost urte geroago, berriz ere lekualdatu zuten parkea, Cirque du Soileil ikuskizunaren karpari enbarazu egiten zioko. Horren ostean, skaterrek IMQ ospitalearen obra jasan behar izan zuten, etengabeko zarata eta hauts harroarekin. Deustuko patinatzaileak orduantxe hasi ziren susmatzen handik ere botako zituztela. Eta halaxe izan da, 2020ko ekainean eraitsi dituztelako Deustun 33 urte egondako skate pistak. Oraingoan ez da lekualdatzerik egon; suntsitzea baizik, baina arrazoia errepikatu egin da: etxebizitzak eraikitzea Zorrotzaurre planaren baitan.

Horrenbeste bueltarekin aspalditik gogaituta eta “zorabiatuta” daude Deustuko patinatzaileak. 2016ko maiatzeko PREST! aldizkarian (169. zk.) aurresan zuten aurtengo ekainean gertatutakoa: “Bere patua desagertzea da. [...] Betidanik esan digute hori, eta guk geuk ere ikusten dugu hondora doala”. Pistak suntsitu izanak zeharo amorratu egin ditu skaterrak, baina ez ditu harritu. Urte guzti hauetan utzikeria eta mantentze-lan falta salatu dituzte, baita ekintzak antolatzeko trabak ere.

“Usteltzen utzi dituzte”

Udalaren esanetan, skate pistako arrapalak oso egoera kaxkarrean zeuden, eta horregatik sun-

tsitu zituzten, beste norabait eraman beharrean. Erabiltzaileek, kontrara, aitzakia baino ez dela uste dute: “Arrapalen metalezko egitura oso egoera onean zegoen, gaizki zegoena egurrezko xaflak ziren, ipini zituztenetik ez dituztelako behin ere ez konpondu. Hemengo eguraldiarekin eta mantenurik gabe, zer espero zuten?”. Horrek amorratzen ditu gehien, “bikainak” ziren arrapalak usteltzen utzi eta suntsitu izana: “33 urteko historia suntsitu dute, nahi izan dutelako, apurtuta zegoelako aitzakiarekin, baina hori ez da egia. Suntsitu baino lehen guri galdetzea zuten, gordetzeko edo beste leku batera eramateko.”

Jorge Carrionek pistak inauguratu zituztenetik ezagutu ditu eta ulertu ezinean dabil Udalak arrapalekin egindako kudeaketa. Kontatu digunez, 1991an arrapala batzuk erosi zituela Espainiako Txapelketa baterako eta geroztik Txurdinagako kiroldegian gordeta dituela, erabili gabe.

Calderonek aspaldi utzi zion patinatzeari eta berak ez du nabarituko Deustun skate pistaren hutsunea, baina pena ematen dio oraingo skaterrengatik eta etorriko direnengandik, ez dutelako auzoan patinatzeko aukerarik izango: “Orain daudenak behintzat antolatuta daude, hainbeste traba eta lekualdatzeren aurrean ez dutelako beste erremediorik izan, baina ondorengoek ez dute ezer izango”, azaldu digu tristuraz.

Hasierako urte indartsuak

Calderonek berak deskribatu digu hasierako urteetako skate munduaren egoera. Patinatzen hasi zenean Bilbon ez zegoen skate pistarik. Kalean ibiltzen ziren gurpil-oholarekin, edo Arrigunaga eta Areetako parkeetara joaten ziren. 1987an, Gorordo alkate izendatu berria zela, hainbat gutun bidali zizkioten hirian skate pista bat eskatzeko: “Garai hartan Metroa egingo zutela esaten hasi ziren, baina inork ez zuen ezer sinesten, ez genuen espero aurrera aterako zenik”, diosku. Euren harridurarako, egun batetik bestera “itzelezko” parkea eraiki zuten Deustun, orduan erdigunetik nahiko aldenduta zegoen gune batean.

“Ondorengoek ez dute ezer izango”

Beteranoaren ustetan, teknikoki oso pista ona eta dinamikoa zen Deustukoa. “Arrapala txikia oso ondo zegoen, erortzerakoan min gutxiago egiteko prestatuta zegoen eta horregatik profesional asko etortzen ziren hona patinatzera. Garai hartako patinatzaile onenek hemen patinatu dute”. Boom izugarria ekarri zuen skate pistak Deustura, “modan jarri zen”. Jende andana hasi zen patinatzen eta orduan zeuden bi kirol dendetan skate material ona saltzen hasi ziren, Calderonek kontatu digunaren arabera.

NUEVO HALF PIPE EN DEUSTO

El pasado sábado 24 de marzo se instaló un nuevo half pipe en la zona del puente de Deusto. La rampa,de madera y fibra, alegró el fin de semana a muchos skaters vascos que se desplazaron hasta allí para poder probarla. Se trata sin duda de un buen half,con estructura transportable,al estilo del que se utiliza en Munster.

La gente que probó la pista alabó la transición y el "coping", pero todos coincidieron en que le hace falta un buen lijado para limar las rugosidades,que frenan el skate. Mucha gente mayor alucinando con los skaters,y caras conocidas entre éstos. Allí estaban David (H-Street), Iván (Life's a beach), y un montón de skaters menos conocidos pero con las mismas ganas de patinar.

Oraingo patinatzaileek, aldiz, ia ez dute ezagutu eszena hori Deustun. Horrela azaldu digu horietako batek: "Ni txikia nintzenean gauza asko antolatzen ziren, eszena oso indartsua zegoen Tigrearen parean zegoela. Jende asko eta oso ona etortzen zen patinatzera, baina, 2009tik aurrera, azkenekoz mugitu zituztenean, denak behera egin zuen. Ordutik ez da mantenurik egon, soilik konponketa txiki batzuk, eta horrek jendeak patinatzera etortzea mugatu du. Amorrua ematen dit hori bizi ezin izanak, nik guzti honen dekadentzia eta suntsipena ikusi dut".

"Zergatik ez gaituzte lasai uzten?"

Egoera horren aurrean, gogoz saiatu dira giroa suspertzen, topaketak eta jaiak antolatuz, eta urtero arrakastatsuak izaten badira ere, Udalaren partetik trabak baino ez dituztela izan azaldu digute: "Une oro izorratu gaituzte, inoiz ez digute ezer egiten utzi". Udalari skate kultura kriminalizatzea, pribatizatzea eta nahita hiltzen uztea egozten diote. "Zergatik ez gaituzte lasai uzten?", galdetzen dute nekatuta.

Pistak konpontzeko hamaika aldiz eta mila modutara eskatu diote Udalari, eta askotan eurek konpondu behar izan dituzte akatsak, ez zietelako jaramonik egiten. "Orain arte ez genuen inolako elkarterik erregistratuta eta horregatik ez ziguten kasurik egiten, baina badago Erriberan skate enpresa pribatu bat eta jabeari bai en-tzuten diote." Kexu dira Olabeagako pista diseinatzeko Udala Gure Txoko enpresarekin bakarrik jarri zelako harremanetan, ez, ordea, egunero skate pista erabiltzen zutenekin. Jabeak bere interes pribatuen arabera jokatu zuela uste dute,

Hi(ZKi) BRi DOAK
Literatura mutanteak

Euskararen Etxea
Agoitz Plaza 1, Bilbo
Metroa: San Ignazio (Lekeitio irteera)
www.euskararenetxea.eus
* Streaming bidez ere hedatuko dira

DOAN

Urriak 8 • 19:30ean
ORAINMENEAN
Txakur Gorria Sormen Kolektiboa. Bertsolaritzaren genealogia feminista.

Urriak 22 • 19:30ean
MUGA
Anfetamiña Xabier Montoiaren lehen liburuan oinarritutako eta Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak argitaratutako egitasmoa.

Azaroak 13 • 19:30ean
HABIAK
Anariren lan homonimoan oinarritutako arte erakusketa kolektiboa. Anari taldeak Habiak diskoa joko du zuzenean.
Sarrera: gonbidapen bidez egingo da.

Abenduak 10 • 19:30ean
BERTSO SAIO LITERARIOA
Mari Luz Estebanek kantuan jarriko ditu Miren Amuriza eta Maialen Lujanbio.

diseinua berak antolatuko zuen lehiaketa jakin batentzako pentsatuta dagoelako. Pista amaitu gabe omen dago, izugarrizko hautsa ateratzen du *bowl*-a bete gabe utzi zutelako. “Olabeagako skate parkea lardaskeria bat denez, jendeak bere skate parkera joan behar du”, diote. Gainera, orain Bilboko *Half-pipe* bakarra berea da, pribatua eta ordainpekoa: “Orain ez dugu nora joan patinatzera”.

Gure Txokoko Gonzalo Idigorasekin hitz egin dugu PREST! aldizkarian eta berak kontrako iritzia du. Etengabe lekuz mugitzearen ondorioz eta mantenu urria dela-eta, Deustuko pistak oso egoera txarrean zeudela uste du. Olabeagakoa, aldiz, “akats batzuk” izan arren, “bestea baino askoz hobea eta berriagoa” dela deritzo. “Inauguratu bezain laster, 2019ko irailean Espainiako txapelketaren finala egin zen han, horrek duen kalitatearen inguruan asko esaten du”, azaldu digu. Idigorasen aburuz Bilboko skaterrek badute leku nahiko patinatzeko, “Etxebarriako parkea ere orain gutxi konpondu dutelako”.

Skate kultura berpiztu guran

Patinatzaileek esan digutenaren arabera, inoiz ez dira babestuak sentitu, ez Udalaren partetik, ez skate enpresa horren partetik, ezta herritarren aldetik ere. Pistak bota zituztenean, jende askok babesa erakutsi zien, “berandu”. Susmoa dute azken momentuan hainbat herritarrek erakutsitako babesa ez ote zen euren onura propio eta probetxu politikorako izango.

Egoera ikusita, duela urtebete elkarte bat erregistratzeko izapideak hasi zituzten. Skatero Elkarte Kulturala deitu zioten, izenak dioen bezala ez dutelako negozio bat izan nahi, “skatearen kultura aldarrikatu” baizik. Lehenagotik ere bazuten elkartea egiteko asmoa, baina lehendik aipatutako enpresa-gizonak mehatxua egin zien, elkartea osatuz gero, gerra deklaraziotzat hartuko zuela esanez. Orain, berarekin haserre, elkartea egin dute, Udalarekin solaskide zuzenak izateko esperantzaz.

Nolanahi ere, elkarterik gabe hamaika ekitaldi antolatu dituzte, Deustun skate giroa berpiztu guran. Deustuko jaietan, Inauterietan, Gau Beltzean, edota Skate Egunean Deustown izenarekin hamaika jai eta topaketa egin dituzte azken urteetan. Azaldu digutenaren arabera, Udalean ez diete inoiz jaiak antolatzeko baimenik eman, eta Jai Batzordeak behin bakarrik utzi zien euren aseguru eta programaren barruan antolatzen.

Alderaketa egitearren, “hizkuntza bat suntsitzea bezalakoa” dela uste dute. Izan ere, haientzat skatea ez da patinatzea soilik, musika ere bada, marraztea, fanzineak idaztea, konponketak egitea: “Hori da gustatzen zaiguna, horren guztiaren bitartez gure burua adieraztea”.

Ez dute etsi, inondik inora, eta argi dute ez dutela Deustun skatearen kultura hiltzen utziko. “Parkea kendu digute, baina guk orain zuhur erantzun behar dugu eta hau bizirik mantendu”, diote.

Udalari eskaera

Hasteko eta behin, “Olabeagako lardaskeria konpondu dezatela” nahi dute, baina bertan patinatuko dutenak kontuan hartuta, “ez berari komeni zaiona egingo duen enpresa pribatu batekin”. Horrez gain, hemengo klima dela-eta, skate parke estali bat behar dute. Ez dute ulertzen zelan Udalak enpresa pribatu batean skate parkea diruz lagundu duen bitartean, 33 urtez kalean patinatzen egon direnei ez dien kasurik egiten.

Hori dena eskatzeko ekainaren 21ean manifestazioa egin zuten Etxebarria parkeko pistatik Olabeagakora, Udaletxetik igarota. Skatearen Nazioarteko Eguna zen, urtero ospatzen dutena, baina aurten jaia beharrean, aldarrikapena izan da nagusi skaterren artean. “Erakutsi behar dugu patinatzaile asko gaudela eta ez dela posible enpresa pribatu batera joatea patina-tzera”, azpimarratu dute. “Bizkaian patinatzeko leku on asko dago eta Bilbokoak tamalgarriak dira. Deustuko parkea eraisterakoan, oso pista ona bota dute, eta ez digute moduluak gordetzen utzi. Ondarea ziren guretzako”.

“Parkea kendu digute, baina guk orain zuhur erantzun behar dugu eta hau bizirik mantendu”

SAN INAZIO INSTITUTUKO IKASLEAK KAZETARI

San Inazio BHI Institutuko ikasleak kazetari bihurtu dira COVID-19aren inguruko gezurrak aztertzeko. Jolas eta Ekin eraldaketa sozialerako proiektuaren laguntzarekin, euren bizipenak, beharrak eta usteak adierazi dituzte hainbat baliabide erabilita. Horietako batzuk jaso ditugu.

Testuak eta argazkiak
San Inazio BHI

Naroa Lauzirika, DBH 2C
Hausnarketa

Honekin guztiarekin gure inguruko jendea baloratu eta zaindu behar dugula ikasi dut, edozein unetan gerta daitekelako hau, eta nork daki berriro ikus ditzakegun. Urteko egun guztietan horrela bizi diren errefuxiatuen eta lekualdatuen azalean ere jarri ahal izan naiz. Eskerrak ematen dut nire senideak eta lagunak ondo daudelako, eta hori guztia gertatzen laguntzen ari diren osasun-langileei. Ahalik eta azkarren amaitzea espero dut, baina horretarako, denok lagundu behar dugu, arduratsuak izan behar gara eta nahi duguna ezin dugu egin, horrela luzeagoa bihurtuko da, etxean sartuta eta jende asko hiltzen ari da kanpoan birusaren ondorioz. Guztiok laguntzen badugu, laster amaituko dugu, eta dena normaltasunera itzuliko da.

Oier Muñoz, DBH2 B
Koronabirusaren ikasketa

Gure lehenengo egunerokoan egunak azkar pasatzen ziren gure bizitza oso azkarra zelako, baina, egun batean, denbora gelditu zela esan dezakegu. Horrek ez zuen sorrarazi tristezia eta jendea faltan botatzea bakarrik. Zortzietako txaloak erakusten digute nola konfinamendu honek gure parte solidarioa atera duen.

Asko ikasi ahal dugu egoera onetatik, adibidez, ikasleen kasuan nahiko zaila da egunerokoa, goiz altxatu beharra, bideodeietako arazoak konpondu edo itxaroten egon beharra, libururik ez izatea… Hala eta guztiz ere, klasekideekin egiten dugu lan zer edo zer eskatzeko eta konpontzeko. Bestalde, lan egin nahi duten irakasleak zeintzuk diren eta gutaz arduratzen direnak ikus ditzakegu. Seguraski gure arazo larriena koneksioa da. Baina, hori guztia lagunen artean konpontzen da eta honek, hurrengo puntura eramaten gaitu.

Lagunen artean inoiz baino konektatuago gaude. Koronabirusak barrera fisikoak jarri ditu, baina, nerabeok oso ondo daramatzagu Interneten kontuak, horregatik, bideodeiak egiten ditugu, beste batzuk PS4arekin jolasten gara eta horrela hitz egiten dugu.

Orain arte aztertu dugu nola gizakiok eramaten gauden egoera, baina, eta natura? Oso galdera ona da. Dakigunez, ekonomia guztia gelditu da eta horren ondorioz Co2 isurketak asko jaitsi dira. Kotxeak ez erabiltzeak izurketak jaisten lagundu digu.

Bestalde, leihotik ateratzen bazara edo kaletik bazoaz, zorte onez ikusi ahal duzu animali ugari. Esate baterako: untxiak, basurdeak (arazoak eman dituztenak), mendiko animaliak eta batzuetan ikusi ahal dira iberiar eguzki-arranoak, hemengoa direnak eta ikusten oso zailak direnak.

Hau guztia ikusita etorkizunak zer ekarriko digun galdetzen dugu egunero. Ez da galdera erraza erantzuteko, baina, logikoak diren gauza batzuk esan ditzakegu. Gutxienez hurrengo urtera arte maskarak erabiliko ditugu. Segur aski, klaseak aldatuko dira eta jende gutxiago egon beharko da gela partekatzen. Hori guztia logikoa da, baina teknikoki jartzen bagara, ekonomia pikutara joango da. Krisian sartuko gara eta BPG (barne produktu gordina) jaitsi ondoren, produktuak garestiak izango dira. Segur aski asken 12 urteetan egin diren hobekuntzak, pikutara bidaliko dira.

Beste aldetik, espero dugu, naturan egin ditugun hobekuntzak (kutsadurarekin lotuta) ez desegitea eta lege dekretu bat jartzea Co2 izurketak murrizteko. Baina, errealistak bagara hori segur aski ez da gertatuko petrolioaren komertzioak milioi asko mugitzen dituelako. Gizartean beste berragertze bat egotearen beldurrarekin egongo gara. Politikari dagokionez, uste dut haien artean errua botatzen egongo direla laguntza eskaini ordez. Bukatzeko, honakoa esan nahi dut: hau guztia bukatuko egingo da, eta norbaitek noizbait esan zuen moduan, “herri batua inoiz ez zanpatua”.

Ainhoa Alvarez, DBH 2 C
Bideoaren gidoia

Harrigarria da, munduak izan dezakeen aldaketa momentu batean. Bat batean 360 graduko buelta itzela eman dezake eta guk ezikusiak egiten gara, eta ez gara kontziente gutxi batzuen esku utzi dugula aldaketa. Eta hau egin dugu, uste dugulako ez dugula botererik, baina, bizitzarako botere harrigarrienetakoa dugu eskutan, etorkizuna, eta geure etorkizuna bizi mantentzeko, borrokatu behar dugu. Pertsona bat aldaketa itzela egin dezake munduan, ba imajinatu, pertsona askok egin dezaketen lana.

Badakit jende asko uste duela nerabeek, denboraldi honetan mugikorrera itsatsita egon direla, baina, egia esanda, ezagutzen ditudan hainbat nerabeek, mugikorra albo batera utzi dute eta antsietatearekin lo egin gabe edo soilik pentsatzen egon dira egunak eta egunak. Eta uste genuen bezain onak ez garela pentsatu dugu, eta horrek buruko min itzela sorrarazten du, baina, beharrezkoa izan da konturatzeko aldaketa behar dugula. Eta egia da asko kendu digutela ,baina, merezia... soilik imajinatu zenbat kendu diogun geuk munduari.

Gehien faltan botatzen ditudan gauzak, eguneroko gauza txikiak dira, horiek, lehen ez nituena baloratzen eta orain faltan botatzen ditut. Adibidez, lagun bati besarkada bat ematea, agurtzeko etab. Edo haiekin ditudan pikeak, nire aititeren etxera egunero joatea eta berarekin eztabaidatzen orduak ematea…

Eta badakit beldurra dugula, azken batean, ez dago inork esateko dena ondo aterako dela. Eta gainera, bakarrik sentitzen gara, baina, aurrera egin behar dugu, eta etorkizuneko, egunerokoetan, zenbait aldaketa ezarri.

BELTZ-TRATULARIAK (III): FRANCISCO LEMONAURIA

Aurreko zenbakiko Medea ontziak 1818an egin zuen Afrikan pertsona bahituak erosi, Kubara eraman eta bertan saltzeko bidaia. Ontziko eskifaiak, ikusi genuen legez, etekin politak atera zituen. Are politagoak, ontziaren ugazabandreak, Ventura Ramona Larrinaga bilbotarrak alegia. Bera bezala pertsonen salerosketan merkatari deustuar bat aurkitu dugu: Francisco Lemonauria.

Testua:
Hektor Ortega



Esklaboak garraiatzeko ontzi baten planoa eta sekzioak.

XVIII. mendean zehar esklabo-tratulari handiena izan eta gero, XIX. mendearen hasieran, Ingalaterrak lema kolpe bat jo zuen eta pertsonen salerosketa debekatu ez ezik, merkataritza higuingarri horri gerra deklaratu zion. Bere buruari eman zion esklabo-ontziak ehizatzeko ardura. Kontua da Kuban, XVIII. mendearen azken herenetik aurrera garatu zutela nekazaritza esklabista, batez ere azukrea ekoiztera bideratuta. Plantazio sistema esklaboen jardunari esker bizi zen. Lehenengo atalean ikusi genuen bezala, Bizkaiko Jaurerriak argi eta garbi azaldu zuen 1765 urte aldean Lousianan 20.000 esklabo beltz nahi zituela "por quanto de la labor de estos depende su riqueza".

Ingalaterrak debekua eta Kubako sakarokraziak beharrizana, beraz. Kinka hartan, 1817an alegia, Espainiako eta Ingalaterrako koroek akordioa egin zuten 1820tik aurrera esklabo-

trafikoa galarazteko. Aurreko atalean ikusi genuen legez, Medearen bidaia orduan gertatu zen, debekua indarrean sartu aurretik ahalegin itzelak egin zituztelako uhartera ahalik eta esklabo gehien eramateko. Ur horietan etekin bila aurkitu dugu Francisco Lemonauria deustuar merkataria.

Urte horiexetan, hain zuzen, ageri zaigu dokumentazioan Lemonauria pertsona-tratulari. 1816ko abenduan errege agindu batek baimena eman zion Flora korbetari "para la compra y conducción de negros a la Havana". Flora Bilboko itsasadarrean prestatzen ari ziren Francisco Lemonauria, Perez eta Juan Jose Zangroniz. Flora 400 tonako ontzia zen. Bidaia 1817an egin zuen.

Floraren espedizioak etekin politak ekarriko zizkien Perez, Zangroniz eta Lemonauriari. Azken biak, behinik behin, negozioan bete-betean murgildu ziren. Markinarra jaiotzez, Zangronizek Kuban zeukan merkataritza konpainia eta hura izan zen ezagutzen zaion lehenengo esklabo-salerosketa operazioa. Geroztik, sarritan ibili zen beltz-tratulari eta 1830ean Habanan jarduera horren aurka epaile aritu zen William Sharp Macleayren iritziz, bere konpainia "edozein zitalkeria egiteko gai" zen.

Lemonauria deustuarrari dagokionez, 1818ko urrian ontzi bi prestatzen ari zen esklaboak erosi eta Kubara eramateko. Agintariei jakinarazi zienez, "estos dos viajes que llevan el destino de trata de negros, exigen vrevedad por la premura del tiempo segun lo tratado entre V.M. y el Rey de la Gran Bretaña". Alegia, azken hilabeteak ziren horrelako merkataritza nardagarria egin ahal izateko eta probestu nahi zituen. Urtea amaitu orduko Nuevo Pájaro (120 tonako bergantina) eta Nuestra Señora de la Piedad (140 tonako fragata) ontzietarako baimenak lortu zituen.

Azkenak ez ziren akabukoak

Azken hilak eta azken bidaiak ei ziren haiek. Baina 1820. urtea heldu zen eta, itxurakeria gorabehera, lehengo lepotik burua. Ingalaterrak baimena eman zion Portugal bere aliatuari urte batzuk gehiago emateko pertsonen saleroskетan, Ekuadorreko lerrotik hegoaldera, Brasilen esklaboak behar zituelakoan. Eta horrek aukera eman zuen legeari iskin eginez Kubara gatibu gehiago eramateko.

Itxura guztien arabera, Lemonauriak horretan ziharduen. 1820ko urtarrilaren 22an Bilboko Tercer Pájaro ontziko (120 tonako bergantina) kapitainak baimenak eskatu zituen bidaia egiteko "de corso y mercancía, la de tráfico de negros". Ontzi hura Kuban hondoratu zen 1821ean, Cayo Verde parean. Lemonauriarena zen.

Ezagutzen dugun beste ontzi batek, Nuevo Pájaro bergantinak alegia, 1821eko apirilaren 14an lortu zuen kortsorako eta merkantziarako baimena. Jarraian abiatu zen "en demanda de la costa de Africa al sur de la equinoccial y de allí a La Habana u otro puerto de SM, armado en corso y mercancía". Ez zuten kargamentuaren nolakotasuna zehaztu, baina honezkero badakigu zertan ibiltzen ziren lehenengo Afrikara eta gero Kubara joaten ziren ontziak, ezta?

Kalderapeko
euskal kultur gunea
www.kalderapeko.com
txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

ABSTENTZIOA NAGUSI IZAN DEN HAUTESKUNDEETAN,

Hamar pertsonatik zazpik aukeratu du erabakitzeko eskubidea defendatzen duen indarren bat.

Testua: Borja Sarrionandia-Ibarra Fernandez

1.700 bozka baino gehiago galdu arren, EAJren zerrenda garaile atera da Deustun uztailaren 12an antolatutako Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan. Azpimarratzekoa da egondako abstentzioa. Herritarren %47,62 ez zen hautesontzietara hurbildu, 1980az geroztik izandako EAEko hauteskundeetatik altuena. Bestalde, erabakitzeko eskubidea onartzen duten indarren goranzko joerak jarraitzen du, duela lau urte jasotako botoen %70,73tik orain lortutako %72,06ra ailegatuz.

1741 bozka gutxiago atera ditu EAJk Deustualdean, 1980tik izan duen emaitzarik baxuena. Hala ere, 8.922 botoekin alderdi jeltzalea garaile atera da, beste behin ere. Botoen %43,73 eskuratuta, orain dela lau urte baino 1,73 puntu gehiago eskuratu ditu, parte-hartzearen jaitsieraren ondorioz. 2012an bezala, EAJ bost auzotan izan da lehen indarra, Deustuko Doneperiagan (%47,45), Ibarrekolandan (%43,04), Elorrietan (%41,56), San Ignazio-Tellaetxen (%40,78) eta Arangoitin (%29,85). Deustuibarran (%19,54) bigarren indarra bilakatu da, ordea.

Hauteskunde hauetan botoetan igo den indar politiko bakarra EH Bildu izan da. 3.762 bozkekin EH Bildu hirugarren indarra izatetik bigarrena izatera pasatu da, botoen %18,44 lortuta, 2016an baino 5,37 puntu gora. Parte-hartzea hamaika puntu jaitsi arren, indar soberanista ezkertiarrak orain dela lau urte baino 496 bozka gehiago eskuratu ditu. 2016an Deustuibarran lortutako lehen postuari eutsi dio, bertan botoen %54,6 lortuta. Bigarren indarra izan da Elorrietan (%22,2), San Ignazio-Tellaetxen (%18,97) eta Deustuko Doneperiagan (%18,01). Arangoitin (%17,95) eta Ibarrekolandan (%15,63) hirugarren indarra izan da PSOEren atzetik.

PSOE hirugarren indarra bilakatu da 3.043 boto lortuta (%14,91). 2016an hasitako beheranzko joerak ez du eten. Lau urteotan beste 149 bozka galdu ditu. Arangoitin (%24,4) eta Ibarrekolandan (%16,33) bigarren indarra izan da, gainontzeko auzoetan hirugarrena, ordea.

Elkarrekin Podemos izan da hauteskunde honetan bozka gehien galdu dituen alderdia. 2016tik hona 1.911 galdu ditu, eta bigarren indarra izatetik laugarrena izatera pasa da. Guztira, 1.832 boto eskuratu ditu, botoen %8,98, 2016an baino 6 puntu gutxiago. Deustuibarran (%7,05) hirugarren indarra izateari eutsi dio. Deustuko Doneperiagan (%9,04), aldiz, hirugarrena izatetik bosgarrenera jaitsi da, PP+C´s-en atzetik. Gainontzeko auzoetan hirugarrena izan da.

Alderdi Popularrak eta Ciudadanosek osatutako koalizioa apenas heldu dira %10era eta 2016an baino 3,45 puntu gutxiago lortu dute; bosgarren indarra izan da, 1.693 boto eskuratuta (%8,3), 1.831 bozka galdu ondoren. Deustuko Doneperiagan (%9,35) laugarrena izan da eta, 3 boto bereganatuta, Deustuibarran (%1,72) zazpigarren indarra bilakatu da EQUO eta VOX alderdi ultraeskuindarraren atzetik. Elorrietan (%3,98) ere ez da ehuneko 5era heldu.

Eusko Legebiltzarrean lehen aldiz ordezkaritza lortu duen VOX alderdiak 481 bozka baino ez ditu lortu, 2019ko azaroan izandako Espainiako hauteskundeetan baino 248 gutxiago. Seigarrena gelditu da botoen %2,36 lortuta. Deustuibarran (%2,3) EQUO alderdiaren azpitik gelditu da.

GASTEIZKO PARLAMENTURAKO EAJ NAGUSI

Elkarrekin Podemos-etik bereizitako EQUO alderdi ekologistak 364 bozka eskuratu ditu (%1,78). Deustuibarran, botoen %4,02 lortuta, bosgarren indarra izan da VOX eta PP+C´S-ren gainetik.













berbetan

ZIORTZA KARRANZA RAMIREZekin

Psikologoa eta sexologoa

“Topaketa erotikoak izateko

Psikologoa eta sexologoa da Ziortza Karranza, doluan espezializatua, besteak beste. Rafaela Ybarra kalean Gurenduz psikologia integralerako zentroan egiten du lan. Terapiak egiteaz gain, doluaren eta sexologiaren inguruko formakuntzak ematen ditu. Itxialdiak jendartearen psikologian nola eragin duen azaldu digu.

Testua: Jone Gartzia Gerra
Argazkiak: Ecuador Etxea

bide berriak urratuko ditugu”

Psikologoa eta sexologoa zara, doluan espezializatua, bikote arraroa.
Psikologia EHUn ikasi nuen, Donostian. Bitartean doluan espezializatzen hasi nintzen, ikusten nuelako heriotzaren kontua ez zela batere lantzen unibertsitatean. Hutsune bat zegoen, sexologiarekin bezala. Jendarte honetako bi tabu handiak dira eta horien inguruan buru-belarri ikasten hasi nintzen. Sexologia masterra egin nuen Madrilen eta dolua Tenerifeko La Laguna Unibertsitateko ikastaro batzuekin landu nuen.

Beti aritu zara psikologo lanetan?
Ikasketak amaitu eta gero, bai. Unibertsitatean bukatu nuenean dolu talde batean hasi nintzen eta enpresetan hainbat ikastaro eman nituen. Dolu eta grafologia (pertsonen nortasuna idazkeran ikustea) ikastaroak ematen nituen eta 2009an sexu-hezitzaileen formakuntzekin hasi nintzen.

Gurenduz psikologia integraleko zentroa sortu zenuen orduan.
Bai, 2009an hasi nintzen Buenos Aires kalean eta orain hiru urte etorri nintzen Deustura. Terapiak eta formakuntzak egiten ditut. Bi formakuntza ematen ditut: bata dolu prozesu bati aurre egiteko ikastaroa eta bestea sexu-hezitzaileen formakuntza. Azken honetan lantzen dugu nola ikusten dugun sexualitatea gaur egun, nola erabiltzen den sexualitatea gure askatasuna mugatzeko...

Zer da psikologiaren munduan gehien erakartzen zaituena?
Pertsonak nola eraldatzen diren ikustea, nola eskuratzen dituzten tresnak hobe eta askeago bizitzeko. Buruhausteak ere gustatzen zaizkit, gizartean horren inposatuta dauden ereduei aurre egitea. Doluan horixe bera gertatzen da: heriotzak laguntzen digu bizitzari balioa ematen, bizitzarekin konektatzen gaitu. Heriotzaz ari garenean oso barruan dugun zerbaiten inguruan ari gara.

Psikologian korronteren batean kokatzen duzu zure burua?
Nire korrontea nahiko sistemikoa da, sistemak hartzen ditut kontuan: familia, bikotea, lana... Gizartea sistema handi bat da eta bere inertziak eta kodeak ditu. Inguruan ditugun sistemek pertsonarengan duten eragina aztertzen dut beti. Sistemak oso magikoak dira, pertsona aldatzen denean bere inguruko sistema ere aldatu egiten da. Konponbideetan Zentratutako Terapia Laburra erabiltzen dut.

Nola bilatzen duzu konponbide hori?
Kontuan hartzen dut pertsonek hobetzeko zer probatu duten, baina ez dien funtzionatu, eta zeintzuk izan daitezkeen hobe egoteko bila ditzaketen irtenbideak. Fokua arazoan jarri beharrean, hobeto egoteko errealitatea nola aldatu dezaketen aztertzen dugu.

“Fokua arazoan jarri beharrean, hobeto egoteko errealitatea nola aldatu aztertzen dugu”

▷ ▷ SAKONEAN

“Hiru hilabete eman ditugu gure buruari bakarrik entzuten”

Bizi dugun egoera mugarri izango da?

Ez daukat argi. Esaten dute inoiz ez garela lehengo egoerara itzuliko. Nik uste dut gizakiok egoerara moldatzeko gaitasun handia daukagula eta honetara ere moldatuko garela. Suposatzen dut aldaketa handia markatuko duela, baina nora goazen ez daukat argi.

Nola egin aurre orain sortzen zaizkigun beldur eta sentimenduei?

Apurka konfiantza hartzen joan behar gara, bai jendartearengan, bai osasunarengan. Zentzudunak izan behar gara, baina beharrezko neurriak hartuta lasai egotea lortu beharko genuke.

Zerbait ikasiko dugu honen ostean?

Lehengo egunean irakurri nuen akaso bigarren pandemian zerbait ikasiko dugula (barreak). Hasieran esaten zuten honek pertsona hobeak egingo gintuela, baina nik ez daukat argi, oxala. Ikusita balkoietara buiaka ateratzen ziren pertsonak, ez dut uste enpatia gehiago garatu dugunik, are gehiago, askotan kontrakoa ere pentsatzen dut. Hiru hilabete eman ditugu gure buruari bakarrik entzuten eta ez dakit hori oso lagungarria den. Oraindik enpatia garatzeko ariketa bat egin behar dugu, ez dut uste pandemiak berez ezer erakutsi digunik.

Nola lortu psikologoarenera doan pertsona batean ondorio positiboak izatea?

Hona etortzen diren pertsonek gertutasuna eta gozotasuna eskertzen dituzte, epaituak ez sentitzea. Terapia batzuk oso konduktualak dira, zer egin behar duzun esaten dizute, baina ni ez naiz horren aldekoa. Nik uste dut pertsonak daukala boterea eta nire papera da duen indar horrekin konektatzen laguntzea.

EMDR (Eye Movement Desensitization and Reprocessing) teknika erabiltzen duzu, zertan datza?

Traumei aurre egiteko bereziki erabilgarria den teknika bat da. Trauma bat dugunean gure garuna blokeatuta gelditzen da, inpaktu bat jaso duelako. Lo egiten dugunean REM fasera pasatzen garenean (lo sakonena) gure begiak oso azkar mugitzen dira. Begien mugimendu horrek dauzkagun bi hemisferioak orekatzen ditu, emozionala eta arrazionala. EMDRean egiten duguna da begien mugimendu bera errepikatu pertsonarekin traumaren inguruan hitz egiten dugun bitartean. Nik eskuarekin egiten dudan mugimendua begiradarekin jarraitu behar dute hitz egin bitartean. Horrela garunak daukan alde emozionala jaitsi eta arrazionala igotzen dugu, bi hemisferioak orekatuz.

Erabilgarria da?
Traumekin hutsune bat zegoen, askotan hitzez ezin garelako dena moldatzera iritsi, baina teknika honekin garunera sartzen gara zuzenean eta beste botere bat ematen digu. EMDRak erakutsi du traumak ez direla betiko eta konpondu daitezkeela.

Nola eragin dute itxialdiak eta bere ondorioek jendartearen psikologian?
Nire sentsazioa da jendea ez dagoela ondo orokorrean. Bi polo daudela esango nuke. Alde batetik, galera latzak izan dituztenak -senideak agurtu ezin izan dituztelako-, beldur direnak eta lanean egon direnak daude. Bestetik, etxean lasai egon diren pertsonak daude. Bi errealitate horiek ez datoz bat eta kalean elkartzen direnean ez dute elkar ulertzen. Uste dut pandemia kolpe handia izan dela gizarte mailan. Gure egunerokotasunekoa apurtu du, ziurgabetasuna da nagusi eta horrek beldurra eta antsietatea areagotu ditu.

Arazo psikologikoak ugaritu dira?
Baietz uste dut. Itxialdian arazo psikologikoekin laguntzeko jarri zuten telefonora jende askok deitu zuen. Epe luzean izango duen eragina ikusi beharko dugu. Adibidez, ez dakit umeengan nolako eragina izango duen. Ordu asko eman dituzte etxean pantaila baten aurrean isolatuta, eta oraindik ezin ditugu ondorioak neurtu.

Azken hilabeteotan gertuko heriotza asko egon dira, eragina izango du jendartean.
Askorentzat urrun gertatu dira heriotzak. Ez genituen eskelak ikusten, soilik datuak, teleberrian. Ez ziren pertsonak, hildakoak baino ez. Errealitatearen distortsio bat egon zen, ez genuen familien minarekin konektatzen. Orain herri batzuetan hasi dira bere garaian jarri ez zituzten eskelak ipintzen, eta hurbiltasuna lortzen laguntzen du.

Nola laguntzen duzu doluarekin?
Nire papera ondoan egotea da eta daukaten minari forma ematen laguntzea. Askotan mina oso traumatikoa izaten da, ez gaudelako galtzeko heziak, soilik irabazteko. Pertsona bat galtzen dugunean askotan injustizia sentsazioa agertzen zaigu, hutsunea, haserrea, tristura... Nire papera pertsona entzutea eta laguntzea da, garunean sentimendu horiei forma emateko.

Eta horren ostean zer?
Bigarren eginbeharra da agertzen diren emozio guztiak onartzea. Heriotzari lotuta errua agertzen bada lanketa berezia egin behar da, hori beti delako sentimendurik txarrena, pertsonaren aurka doalako. Hirugarren pausua hildako pertsona horri bere lekua ematea da eta laugarrena bizitzarekin aurrera jarraitzea. Badaude heriotza errazagoak eta zailagoak eta horrek eragina du doluan. Ni eginbeharren aldekoa naiz, eta ez faseen aldekoa, paper aktibo bat ematen dizulako eta ez delako nahikoa faseak noiz igaro itxarotearekin.

Arazoak sortu ditu jendearen sexualitatean?
Ez daukat daturik, baina uste dut gero eta jende gehiago hasi dela ligatzeko aplikazioak erabiltzen jendea ezagutzeko. Lehen, jende askok ligatzeko esperantzak jaietan zituen jarrita, baina orain ez dago horrelakorik. Errealitatea aldatu da eta topaketak izateko beste modu bat bilatu behar dugu. Alde horretatik teknologia berriek erantzun azkar bat ematen digute. Bikote harremanetan ikusi dut desira asko jaitsi dela, gezurra badirudi ere. Hasieran kontrakoa ematen zuen, askok esaten zuten itxialdian ume belaunaldi berri bat sortuko zela, baina orokorrean kontrakoa ikusi dut, desiraren jaitsiera, alegia.

Harreman sexual eta afektiboetan ere?
Noski, dagoeneko izaten ari da. Asko kutsatzeko beldur dira eta gero eta gehiago ikusten dugu beste pertsonaren gorputza mehatxu bat bezala. Horri ere aurre egin beharko diogu.

Zelan?
Topaketa erotikoak izateko bide berriak urratuko ditugu. Orain muxuek kutsatzen dute gehien, agian muxuak eman ordez, masajeak ematen hasiko gara, batek daki. Agian topaketa erotikoei buelta emango diegu eta genitalek protagonismoa galduko dute eskuen mesedetan.

“Umeek ordu asko eman dituzte etxean pantaila aurrean isolatuta, eta oraindik ezin ditugu ondorioak neurtu”

DONE PETRI PLAZA

Obra proiektua onartu dute

Bilboko Gobernu Batzordeak Done Petri plaza eta Agirre Lehendakariaren kalea urbanizatzeko obraren proiektua onartu zuen ekainaren 24an. Lanen finantzaketa ere onartu zuen batzordeak. Proiektu honetan 2020an 36.830,37 euro erabiliko dira, 2021ean 3.850.431,28 euro eta 2022an 420.934,28. Aipatutako proiektuak deustuarren aldarrikapenak eta beharrizanak betetzen ez dituela salatzeko eta Udalari parte hartze prozesu bat eskatzeko, iazko uztailean Deustuko Plaza Bizirik plataforma sortu zuten ainbat herritarrek eta eragilek. 14 elkarteren sinadurak aurkeztu zituzten Udal erregistroan eta honen erantzunik jaso ez zutenez, urriaren 27an mobilizazio jendetsua egin zuten euren aldarrikapenak plazaratzeko.

AUZO MUGIMENDUA

Erriberako elkartasun saskia

Itxialdian Erriberako bizilagunak konturatu ziren auzokide asko estu zebilela jatekoa lortzeko, egoera ekonomiko latzari elikagai bankua bertan behera utzi izana gehitu behar zitzaiolako. Honi aurre egiteko, hainbat bizilagun elkartu eta sare bat osatu zuten, euren kabuz jatekoak lortu eta behar zutenen artean banatzeko. Ordutik, Erriberan bizi diren 25-29 pertsonentzako oinarrizko saskiak prestatu dituzte astero. Hemendik aurrera, aldiz, bi astean behin egingo dute banaketa, eta irailetik aurrera Basauriko Elikagai Bankuarekin lortutako hitzarmenari esker bertatik lortuko dituzte jakiak. Banaketa astearteetan egiten dute Bizinahi Auzo Gunean, 19:30etik 20:30era.

Harremanetarako:
erribera.bizinahi@gmail.com

LANGILE BORROKA

Langile Autodefentsa Sarea Deustun

Maiatzean Bilboko Langile Autodefentsa Sareak Deustuko Irish Stones Pub tabernako langile baten bidegabeko kaleratzea salatzeko kanpaina hasi zuen. Ekainaren 25ean jakinarazi zuen bi asteko borrokaren ostean tabernaren jabeak eskatutako dirua ordaindu ziola langileari, kasua irabazitzat joz. Egun batzuk beranduago, sareak adierazi zuen kasuak telefonoz eta posta elektronikoz jasotzeaz gain presentzialki ere artatzen hasiko zirela. Astelehenetan Erronda kaleko Zirika Herri gunean egongo dira 17:00etatik 19:00etara, eta asteazkenetan 11:00etatik 13:00etara egongo dira Deustuko Gazte Lokalean, behar duenari laguntza eta aholku emateko.

Harremanetarako:
631 318 375
bilbokoautodefentsa@riseup.net

PREST! aldizkariaren babesle kanpaina abiatu dugu

PREST! aldizkariaren egoera ekonomikoa ahula da aspaldi, eta aurten okerrera egin du Covid-19aren krisiaren eraginez. Kalitatezko aldizkaria baldintza duinetan ateratzeko ezinbestekoa da irakurleek diruz babestea. Urtean 25 euroko ekarpena proposatzen dizugu, erraz-erraz egin daitekeena: helbideratze bidez, transferentzia eginez edo dirua eskura ekarriz. Zure datuak emateko, mesedez idatzi prestharpide@gmail.com helbidera. Aldez aurretik eskerrak eman nahi dizkizugu lantalde osoaren partez, irakurle zaren aldetik zu ere PREST!en parte zarelako.

Urtea: 1976

Txema Luzuriaga

Elorrietako Etxe Handia

Sociedad Constructora de Elorrietak 1903an eraiki zuen Elorrietako Etxe Handia, antzeko etxebizitza gehiago eraikitzeko asmoarekin. Gertu zegon Tubos Forjados lantegiko (geroago Tubos Reunidos izango zena) langileentzako eraiki zuten. Eraikinak 16 metro zabal eta 150 metro luze zituen, guztira 2.400 m2, 118 etxebizitza, 7 solairu eta atiko batean banatuta.
Mirenek lagatako argazkia.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com

AZALA
TATTOO STUDIO
Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda
tlf. 640 903 311
instagrama: @azala.tattoo

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

Optica Avenida
Agirre Lehendakaria, 147
SAN INAZIO
Tfnona: 94 475 11 24

ATXURI TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak
☎656 410 475
Plaza Celestino Mª del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com

Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

Toki Berri
Taberna
Good vives!
Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Tintorería La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu

artez euskara zerbitzua
Probatu herrizki.eus
ANDROID APP Google play
App Store

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek ■ euskaltegia
Matrikula zaitez!

Nailan
Parquetak - Barnizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI
OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
☎94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

KM PERSIANAS CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23

Zer egingo duzu uda pandemiko honetan? Zein izango da zure Covid-uda?

Lur Mallea

Jone
Gasteiz

Liburutegian egongo naiz master amaierako lana egiten, musukoa soinean dudala, noski. Konfinamenduan jarraituko dut, aldaketa handirik gabe.

Esti
Errenteria-Caparroso

Albaniara joatekoa nintzen abuztuan bikote eta alabarekin, baina ia ezinezkoa da. Azken unean erabakiko dugu nora joan.

Agate
Getxo

Inprobisatu egingo dut. Goizean leihoa zabaldu eta ikusiko dut zer egin. Ea ez diguten ezer ixten. Hondartza eta garagardoa ez dadila falta ahal den neurrian.

Ane
Deustu

Super bidaia bat egiteko asmoa nuen ekainean, baina ezin izan dut. Herrira joango naiz, Eara, eta inguruan ibiliko naiz eguneko eta asteburuko planak eginez.

Ander
Zamudio

Ez daukat planik. Zerbait egitekotan, lagunen baten herrira joango naiz pisu patera batera.

Mikel
Derio

Bi opor astetan hondartza, mendia eta dantza asko egitea. Ondoren, astebete lanean emango dut eta gero, pandemiak uzten badit, Esteponara joango naiz familiarekin. Olatu artean maitasuna aurkitzea espero dut.

>> GAZTE EGUNA

DEUSTU ETA IBARREKOLANDAKO ERRENTA APALEKO ATALAK ETXEBIZITZA ZAHARBERRITZEKO UDAL PLANETIK KANPO

Surbisako (etxebizitzak zaharberritzeko udal sozietatea) Administrazio Kontseiluaren ekaineko azkeneko bileran Bilbao Aurrera laguntza-plana onartu zen, EH Bilduren aurkako boto bakarrarekin. "Renove programa" horren helburua etxebizitzak zaharberritzeko obrak diruz-laguntzea da eta Bilboko 40 auzoetatik 32ra zabaldu da. Deustuko Doneperiaga eta Ibarrekolanda auzoak Plan honetatik kanpo gelditu dira, auzo osoaren errenta maila aintzat hartu delako. Deustuko gainerako auzoek plan horrek eskaintzen dituen dirulaguntzak jaso ditzakete.

Testua eta irudiak: Borja Sarrionandia-Ibarra Fernandez

Bilboko Udaleko webgunearen arabera, Etxebizitzen Renove Plan horrek bi helburu ditu. "Alde batetik, gizarte kohesioa sustatu nahi du, auzo kalteberetan bizi diren pertsonei dirulaguntzak emanez beren etxebizitzen barruan obrak egin ditzaten, kalitatea eta erosotasuna hobetzeko eta ingurumen-neurrietan ere hobetzeko. Bestetik, eraberritzeen eta obren sektoreko enpresen, gremioen, autonomoen eta profesionalen jarduera sustatu nahi du, sektore horretako enpleguei eustearren edo berriak sortzearren, ahalik eta lasterrena eta deslokalizazioa saihestuz, eta, aldi berean, materialen eta instalazioen industria jarduerari eraginez."

Dirulaguntzak, gehienez ere, 6000 eurokoak izan daitezke. Erabakiak laguntza plan honetatik kanpo utzi ditu, besteak beste, errenta apala duten Deustuko Luzarra, Ramon y Cajal, Torremadariaga edota Lagun-Etxea, eta Ibarrekolandako Arrue Margolariak, Benidorm, Juan de Urbieta, Txakoli e Ibarrekolanda kale zein auzune historikoak.

Renove Plan horretatik kanpo uzteko EAJ eta PSOE alderdiek gehiengo osoa duten Surbisako Administrazio kontseiluak auzo osoaren errenta aintzat hartu du. Deustuko Doneperiaga eta Ibarrekolandako batez besteko familia errenta 38.087,17 eta 35.823,13 eurokoa da, hurrenez hurren.

Kontua da, aipatutako Deustuko bi auzo hauetan, aldeak nabariak direla bai atalen artean eta baita familia-etxeen artean ere, PREST!eko 2019ko azaroan (207) irakurri genuen bezala.

Deustuko Doneperiagan, esaterako, Torre Madariagako Gipuzkoa, Logroño eta Santander kaleek zein Blas de Otero, Jon Arrospide eta Iruña kaleko Torre Madariaga auzuneko zatiek dute batez besteko familia errentarik txikiena (22.529 euro).

Torre Madariagako beheko zatiak baino emaitza hobeak izan arren, batezbestekoaren oso azpitik eta familia errenta txikienak dituzten atalen zerrendaren buruan daude Ibarrekolandako Arrue Margolariak, Benidorm, Juan de Urbieta kaleek eta Ibarrekolanda plazak osatzen duten etxadia (24.419 euro) eta Madariaga eta Blas de

Otero kaleen arteko Torre Madariagako goiko zatia (25.056 euro) ere.

Barrutiko Kontseiluan EH Bilduren salaketa

Surbisako Administrazio Kontseiluan auzo batzuk Renove Plan horretatik kanpo gelditzearen kontra bozkatu zuen EH Bilduk uztailaren 7an egindako Deustuko Barrutiko Kontseiluan eskatu zuen Surbisari zuzentzeko eta "oso beharrezkotzat" jotzen zituen laguntza horiek familien errentaren eta eraikinen antzinatasunaren arabera emateko. Horren ondorioz, Deustuko Doneperiagako edota Ibarrekolandako edozein familiak laguntza hauek jaso ahalko lituzkete, Bilboko beste 30 auzotan egin daitekeen bezala.

Barrutiko Kontseiluan bertan EAJ eta PSOEren ordezkariek erabakia hartuta zegoela eta ezin zela aldatu erantzun zioten Juan Antonio Alonso EH Bilduren eledunari.

http:// sarekada

Lurgida APP

Udalbiltzak Lurgida aplikazioa sortu du, Euskal Herrian barne turismoa sustatzeko xedez. Bertan, ibilbide tematikoak, autokarabanei ongi etorria egiten dieten etxaldeak eta ondare immaterialaren errepresentazioak bildu dituzte. Bizkaia ezagutzeko hainbat proposamen aurkeztu dituzte, besteak beste, Euskal Pilotaren ibilbidea, Txakolinaren bidea eta Gorbeiako abelbidea, Sarriako Parketxean hasi eta Zeanuriko Uribe auzoan amaitzen dena.

Gozatu Sarean Euskaraz

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ingurune digitalerako euskarazko edukiak zabaltzeko kanpaina abiatu du, arlo honetan enpresek eta eragileek egiten duten zabalkunde lanari bultzada emateko. Kanpaina sare sozialetan egingo da udan zehar eta Eusko Jaurlaritzak inoiz sustatutako produktuak aukeratu ditu zabaltzeko. Lehenengo fasean aisialdiarekin eta kirolarekin lotutako eduki eta baliabide digitalak zabalduko dira: webserieak, webguneak, aplikazioak, mugikorreko jolasak... Hurrengoetan, berriz, beste baliabide batzuk zabaltzeko asmoa dute: kultura arlokoak, euskara ikastekoak...



JAI FALTAREN ALBO-KALTEAK

Azken hilabeteetako auzo, herri eta hirietako jai zein ospakizunak bertan behera geratu dira martxoan lehertutako pandemiaren ondorioz. Horrelakorik gerta zitekeela uste ez genuen arren, hasteko egun baten faltan Deustuko Jaiak ezerezean gelditu ziren martxoaren bigarren hamabostaldian, Deustuko Jai Batzordearen erabakiz.

Testua: Nerea Cubillo Urkizu
Argazkiak: Deustuko Jai Batzordea

Domino fitxen antzera, bata bestearen atzetik erori dira azken hiru hilabeteetan ospatzekoak ziren Bilboko auzoetako jai guztiak, baita Aste Nagusia eta Euskal Herriko hainbat txokotako azokak ere. Dena berregituratzeko beharrez, Bilboko auzoetako jai batzordeek luze daramate lanean data egokien bila, baina Deustuko Jai Batzordearen arabera Udalaren eta instituzioen jarrera dela-eta, zaila izango da uda osteko egunetan zerbait antolatzea. Auzoetako jai batzordeak bezala, hornitzaileen sektorea ere kaltetua izan da jaien beherakadarekin, askok urteko fakturazioaren erdia baino gehiago ekitaldi hauei esker eskuratzen baitute. Nola dihardute jaiak posible egiteko lan egiten duten hornitzaileek?

Bitxiak S.L. enpresak, adibidez, martxotik urrira bitartean Bizkaiko herrietara plastikozko edalontzi berrerabilgarriak eramaten ditu. Piroteknia eta jaietako zapiak ere bertan eskatzen dituzte herri eta auzo askok.

Jai ekitaldietako produktuak saltzera mugatzen da Bitxiak, hortaz, ospakizun bat ere ez egiteak kolokan utzi du bertako langileen egoera. Pepe jabearen arabera, aurreko urteko fakturazioaren %10a baino gutxiago fakturatu dute aurten.

BOGA Garagardoak kooperatibako Urtzi Ugalderen hitzetan, urtean fakturatzen duten %50a ostalaritzatik zein jai ekitaldietatik lortzen dute. “COVID-19aren ondorioz martxoa eta maiatza bitartean galera handiak izan ditugu, salmenta kanalen %80a konprometitua geratu da”, dio.

Udako jai guztiak bertan behera geratu direla-eta, hiruhileko hau funtsezkoa izango da kooperatibak nolako galera izango duen jakiteko: “Beste garagardo artisau batzuekin alderatuta, esparru horretan asko mugitzen den marka gara, beraz, ikusiko dugu nolakoa izango den gure egoera urte amaieran”.

Egoerari aurre egiteko asmoz, bestelako fakturazio bide batzuk asmatzen hasi direla argitu du Urtzik, batez ere online salmentan: “Soluzio digitala eta produktu berriak sartu ditugu gure webgunean eta horrekin batera fabrikarekin lotutako esperientzia ezberdinak ere indartu ditugu, bisita gidatuak, adibidez”.

Eta kulturgintzarekin zer?

Orokorrean auzoetako denda txikiek era batean edo bestean normaltasun berrira egokitzea lortu duten bitartean, antzoki eta kultur aretoetako emanaldiek eta kaleko kontzertuek alarma egoeran jarraitzen dute. Hori dela eta, Espainiako Gobernuak kultur sektorearentzako dirulaguntzak jarri zituen martxan apirilean. Dirulaguntza horietatik kanpo geratu dira emanaldiak aurrera

ateratzeko ezinbestekoak diren soinu- eta argi-teknikariak, makilatzaileak eta tramoiariak. Gehienak langile autonomoak dira eta “langabezia mugagabean murgilduta” dauden. “Erakundeen abandonua eta sektoreak pairatu duen langabezia igoera larriari aurre egiteko” Teknikariok ikuskizun eta ekitaldietako teknikarien sindikatua sortu dute ekainean.

Laburbilduz, jaietako oinarrizko produktu bilakatu dira txosnak, kontzertuak, plastikozko edalontzi berrerabilgarriak edota zapiak eta piroteknia. COVID-19ak gure auzoetako jaiak bertan behera utzi dituen bezala, aurreikuspenek diote datorren urtera arte bestelako ekitaldirik ez dela antolatuko, auzoetako eragile eta elkarteen egoera ez ezik, hornitzaile askoren biziraupena kolokan utziz.

PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

Patata erre beteak

Uztailean berrikuntza berezia dakarkigu Pintxodromoan. Juan de Urbieta kalean ireki berri duten Euskopapara gerturatu gara. Adil jabeak eta Dante sukaldariak jatetxeko eskaintza zabala aurkeztu digute.

Zailtasun maila: Ertaina

Egiteko denbora: Ordu bete

Prezioa: 4 eta 8 euro artean

Berezitasuna: inguruan patata erre beteak prestatzen dituen jatetxe bakarra da

Kontu batzuk

Itxialdian otu zitzaion Adil El Hafianeri jatetxe bat irekitzeko ideia. Dena itxita zegoen bitartean, janaria etxera eramateko zerbitzuek martxan jarraitzen zutela ikusi zuen, eta beste itxialdi bati aurre egiteko negozio aproposa iruditu zitzaion. Hala, ekainaren 18an ireki zuen Ibarrekolandan Euskopapa. Denetarik prestatzen dute etxera eramateko: pizzak, bokatak, hanburgesak, oilaskoak, entsaladak, pasta... Baina denen artean bitxiena patata erreak dira. Tamaita eta betegarri desberdinekin egiten dituzte, eta asteazkenetan 2X1 eskaintza dute.

Euskopapako Dante

EUSKOPAPA

Juan de Urbieta kalea
Ibarrekolanda
946074353
@euskopapa

Astelehenetik igandera 12:30-16:00 eta 19:30-00:00
Ostiral eta larunbatetan 01:00ak arte

Zelan egin?

Lehendabizi patata azal eta guzti labean 50 minutuz izan behar dugu. Prest dagoenean, erditik moztu eta barruko mamia aterako diogu, patata apur bat azalean utzita. Mamiari gatza, pipermina, olioa eta mozzarela gazta gehituko dizkiogu. Ondo nahastu behar dugu orea osatu arte. Amaitzeko, patata bakoitzaren betegarriak gehitu behar zaizkio mamiari. Ondo apaindu eta jateko prest!

OSAGAIAK

Patata guztien oinarrian olioa, gatza, pipermina eta mozzarela gazta dago.

Mexikarra
Cheddar gazta, tomatea, artoa, kipula, jalapeño saltsa

Hasselback
Hirugiharra, tomatea, Idiazabal gazta

Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!
Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...

ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN

kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa

JON MIRENA SAN PEDRO
Irakurle irregularra

NEMO KAPITAINAREN AZKEN BIDAIA

Duela bi urte liburu hau oparitu genion semeari, eta aurretiaz irakurri bagenuen ere, bere gomendioari jarraituz 11 aldiz berrirakurri dut harrezkero. Orain, abagunea profitatuz, zuei luzatu nahi dizuet horretarako proposamena, bakarka edota etxekoen konpainia onean, leitu dezazuen. Ez da ttikia ene gozamena haur eta gazte literaturan barneratzen naizenean, neskalaguna eta seme-alabekin liburuak trukatzearekin batera.

Nadiak ez du neba-ahizparik, eta amarekin bizi da errepide ondoko pisu batean. Aita kartzelan da, eta Nadiari, jakina, ez zaizkio presondegiak lakhet, besteak beste hotzak, zikinak deritzelako. Itsaso zabala maite du, eta aita non dagoen galdetzen diotenean, Ozeano Barean dagoela ihardesten du, urpekuntzi batean, Nemo kapitaina bezala.

Castillo Suarezek idatzita eta Aitziber Alonsok marrazturik dugu 59 orrialdetan, esaldi laburrez josita, edertasunak gainezka egiten duen, behin baino gehiagotan irriñoa loratu didan liburuxka. Hunkigarria. Ez ordea, kupidari emana.

Nik neuk ezin dut errukia jasan, are guttiago samurkeriaren eskutik badator, etsipenerako erregai edota auskalo zertarako aitzakia gisa. Nadiak berak diosku... "Nik ez dut inoren penarik nahi!". Eta eskertzekoa da Castillok Nadiaren, bere senide eta lagunen kemena, duintasuna, urrikalmenduz lokaztu, desitxuratu ez izana.

Liburuak elkarri oparitzeaz gain, gurean ere ederki dakigu izozki bat jatea -ahal bada batbederari lakhet zaion zaporea aukeran izanik!- samina ohiltzeko era gozagarria dela. Negu gorri azkengabean bagaude ere.

Doinua: Ozaze Jaurgainian

IRATXO GOROSTIZA ETXEBERRIA
Elorri bertso-eskolako kidea

Egoki jositako
hitzen boterea
doinu batzuen errimez
adieraztea
bizitzari lotzea
kantuz umorea
erraietan egosteko
ametsen orea
Elorrin lagun giroz
horretan hastea
izan da aste barneko
poza, kolorea

Deustuko periferia
omen da Tutera
Nerbioien jaiotzen da
nafar erribera
tomatea landatzen da
asfalto gainera
poteoan olinpiko
inoiz ez ohera
bertakoa ala ez
kalean behera
herri bat arnas daiteke
jatorra gainera

ZURE BETIKO GESTOREA, URRUTITIK ERE GERTU.

Batzuetan, lagunduko dizun norbait ondoan behar izaten duzunez, LABORAL Kutxako zure gestorea urrutitik ere gertu duzu.

Egin zure gestioak Online Bankaren bidez ere: online bilerak, finantzetako kontsultak, dokumentuak trukatu eta sinatzea...

Berritzea gauzak erraztea da.

Online Banka

LABORAL kutxa

Bada beste modu bat

Indartu **euskarazko tokiko** hedabideak

Izan herriko aldizkariaren **parte**

Deustuko informazioa hilero **paperean** eta **e-postan**

Babestu PREST! aldizkaria

25 euro urtean

prestharpide@gmail.com

Prest!